

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2014ko ekainaren 27a · 352. zenbakia, 25. urtea



1989ko ekainaren 29an atera genuen lehenengo zenbakia. Batera egin dugun bidea elkarrekin ospatzea tokatzen da.

8

Elkarrizketa

Jakes Goikoetxea

13

Adarretatik helduta

Jon Sarasua

15

Elkarrizketa

Esteban Gozategi

29

Akuilua hartuta

Mikel Markez

PUBLIZITATEA



**“A” gizartea
lortzeko
eskatu beti faktura**

(B) Diru (B)eltza,
etorkizun (B)eltza

Faktura eskatzen duzunean, zuretzat ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezikuntza, azpijoturak, enplegu eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOK EKONOMIA
GARDENERA www.eleokortzagardenera.net




ODITZ

*Amara zaharago sinetabond
gizarte eta erakundeak*

tel. 943 83 00 89

URAITZ

*Herri-erakundeak
jardun-erakundeak*

Erakundeak: 943 83 18 97

**ASADOR
NIXARIO**

Barra Oñateko Etxe 2
tel. 943 83 00 89

Zaragueta
Herri Eskola *Orio*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 01213700@hezkuntza.net

XS

erakuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

arKitektura

hemikobarra 6, zarautz

Borja Agirresarobe Lopetegui
635 731 722

26URPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Alustiza Autobusak
Alustiza Buleinak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

350

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako boluntarioak

Pat Cowie,
Zigor Esoain,
Ana G. de Txabarri,
Anjel Lertxundi,
Mikel Markez,
Jon Sarasua,
Bertsozale elkarte
eta Xabier Sukia

Diseinua

Saioa Perona

Banatzailleak

Esti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen edota iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa berre-
man daiteke, osorik edo zatika,
baldin eta iturria aipatzen bada.



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

KARKARAKO sortzaileak 1989an. KARKARA

HASI BERTSOTAN

XABIER SUKIA (DOINUA: MIKEL LABOAREN KANTUZ)

1989

1

Larogeitabatzia
San Pedro(re)n Kontxa da
Bush igo zen kargura
Felipe kargara
Espainian saritua
izan zen Obaba
Dali hil zen urtean
bertatik bertara,
Orio txiki hontan
jaio zen Karkara.

2

Larogeitabatzia
Madrilen liga da
fiñonen giroa ta
Lemonen Tourra da
Lopategi txapeldun
plazatik plazara
Berlineko muroa
bota aurretik hara!
Oriyo txiki hontan
jaio zen Karkara.

3

Larogeitabatzia
HB-ren da
Gugenheim efektuak
jan zuen euskara
Ben Jonsonen karrera
joan zen pikutara
udan dantzatzan ari
Ginela lambada
Oriyo txiki hontan
jaio zen Karkara.

Publizitatea kontratatzeko:
Karkara
688 859 682 (Idurre)
karkara@karkara.com

karkara.com

Orioko EAJ-Jk eskerrak ematen dizkie oriotarrei

Orioko EAJ-PNVtik eskerrak eman nahi dizkiegu oriotarrei azken hauteskunde europearretan eman diguten babesagarengatik. Beste behin ere, alderdi bozkatuena izan gara Orion.

Emaiza hauek azaltzen dute oriotarrek erakundeak kudeatzeko konfiantza dutela EAJko pertsonengan.

Guk lanean jarraituko dugu Orioren alde, datorren urteko udal hauteskundeetan berriro ere oriotarren babesarekin kontatzen jarraitzeko. Mila esker denoi. ■ **Orioko EAJ-PNV**

Antonio Campos, Ohorezko Euskaltzain izendatua

Ikastolen alde egindako lanagatik izan da saritua Antonio. Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakari izan zen Antonio Campos 1980tik 1987ra eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko kargu gorena izan zuen 1987tik 2002ra bitartean.

Idatzi honen bidez joan dadila gure eskertza eta errekonozimendua Antoniokegin duen lanari. ■ **Orioko EAJ-PNV**

Aiako bizilagunak Orioko Danbolin Musika Eskolan

Informazio hau zuzena da: Orioko Danbolin musika eskolako ikasle guztien matrikularen zati bat Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du -%25-, bestea ikasleak -%30- eta, azkena, Orioko Udalak -%45-.

Zuzena da Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzari gutxienez herena ordaintzeko eskaera egin ziola 2013an pleno akordioz, eta baita Aiako udalari bere ikasleen zati proportzionala ordaintzeko eskaera egin ere.

Zuzena da Orioko Danbolin musika eskolako ikasle aiarrek oriotarrek adina ordaintzen dutela esatea, baina Orioko Udalaren eskuzabaltasuna izan da honen arrazoi.

Zuzena da herrien artean elkartasun-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

nez jokatzeari eta harreman historikoak mantentzea, baina horretarako hitzarmenak sinatu behar dira. Bien artean proposatu eta adostutakoak. Herriarren beharrak identifikatu eta erantzuteko helburuz.

Baina zuzenena eta, egokiena, Aiako udalak Oriokoari orain artekoa eskertu eta hemendik aurrerako bere erantzukizunak beregain hartzea litzateke, bere herrian erroldatutako ikasleen matrikula zatia ordainduz. Ikasleek eta musika hezkuntzak merezi dutelako.

■ **Aiako EHBildu**

Negoziatu dezagun

Ez dugu zalapartarik nahi, konponbidera iritsi nahi dugu. Ez da besterik. Musika eskolako matrikula ordaintzeko hiru diru-iturri dira ezinbestekoak: ikaslea, udala eta Eusko Jaurlaritza. Bakoitzak kostuaren herena hartu izan du urte luzetan. Eusko Jaurlaritza murrizketak egiten ari da, ordea. Berak jartzen ez duena Udalak jarri behar du. Horregatik pisua eta garrantzia hartzen ari da gaia.

Aiako ikasleen kasuan Orioko Udalak ordaintzen du. Eta ez zaigu justua iruditzen. Ez du, beharbada, osorik izan Aiakoak hartu behar. Erdibideko soluzioak aurkitu daitezke. Zati bat

Aiako Udalak eta bestea Oriokoak ordaintzea, esaterako. Orioko Bildu prest negoziatzeko. Bilera egin genuen. Gerora proposamena idatziz bidaltzeko eskatu zitzaigun. Plenoak adostu eta urte hasieran bidali zen proposamena. Aiako herritarrek Orioko udalbatzarrean entzule zirela onartu zen proposamen hura. Baina ez dugu erantzunik jaso.

Auzo herriak gara. Elkarlanean ari gara zenbait gaietan. Hemen ere elkarlana beharko dugu. Gu prest negoziatzeko. ■ **Orioko Bildu**

Txaranga, zuzenean ez bada grabatuta

Krisiaren eragina edonora iritsi da, arraunlarien alironetara ere bai. Estropadan egindako esfortzua eta herrira ekarritako saria eskertzeri gustura jotzen gara plazara. Txarangaren doinuaren erritmoan, itxaferoaren burrun da entzunez, txalo zaparrada eskaini eta pozez bueltatzen gara etxera.

Dirudienez, ordea, aurrerantzean ez dugu txaranga askorik izango alirone-tan. Krisia dela eta ez dela, garestia omen da. Dirurik ez badago horretarako, bozgorailutik kaseta edo CDa jarriko balitz sikiera Tristeia gertatzen da ongietorria musikariek gabe eta proposamena aintzat hartuko ote dute!

■ **Izaskun Arruti**

Orioko txosna batzordeak oriotarrei

Orioko Txosna Batzordeak hainbat urte hausnarketa sakonik egin gabe pasa ondoren beharrezkoa ikusten dugu gure jaien eta txosnen gaineko errepaso bat egitea.

Gure ahalegina herria girotzean datza. Herriak eginiko jaiak bultzatzen ditugulako, herriarentzat. Horregatik hartu izan dugu parte Udalak deitutako Festa Batzordean orain artean. Jolaldunak, kontzertuak, herri bazkariak, txarangak... osatu izan ditugu eta ederki pasa ingurua eta lagunak zainduz. A ze gozamen! Txosnetan sartzea den

giroa ere beharrezkoa iruditzen zaigu. Gure gune irekiak, amesten dugun herria, jaietan eraikiz. Amalurraren zaintzailea, parekidea, euskalduna eta irekia.

Ez gaude, ordea, itxaferoak botatzeko garaian. Garestiak dira, eta kanpotik ekarri behar dira. Adar-jotzaileak falta ditugu. Txosnetan eta jaietan murgilduko diren adar-jotzaileak, Txosna Batzordeak begiz jota duen Orioko plaza-ko giro goxoa alaituko eta indartuko duen herriko jendea.

Ateak irekita izaten ditu beti Txosna Batzordeak, taldearen helburuarekin bat egiten duen edonorentzako irekita. Batzorde anitza eta jendetsua herri osasuntsu eta alaiaren adierazgarria da. Jai giroan murgilduta oriotarrentzako festak nahi dituenari Txosna Batzordera gerturatzeko deia egin nahi diogu. Hastera goazen hausnarketan parte hartu eta ondorengo erabakiak elkarrekin hartzeko garaia dugu. Esku-

Urteurren festa

KARKARAREN 25. urteurrena dela eta hainbat ekintza antolatu ditugu, batzuk Aian eta beste batzuk Orion.

352. alea eskuartean duzula horietarikoz batzuk jada atzean utziko zenituen, Iñaki Perurenaren hitzaldia kasu.

Beste batzuk, ordea, ate joka dabil-tza, bertaratzeko eta festa giroan murgiltzeko eskatzen.

Animatu, parte hartu eta ondo pasa KARKARAREN 25. urteurren honetan!

zabalik hartuko zaitugu Sanpedroen ondorengo astean egingo dugun balorazioan. ■ **Orioko txosna batzordea**

Etxeluzek lau urte

Lau urte beteko ditu Etxeluzek uztailaren 2an. Sanpedroak aprobetxatuko ditugu aurtengoan, urteurrena ospatzeko. Kontzertu xume baina berezi batekin emango dizkiogu zorionak gaztetxeari, ekainaren 28an, goizeko 2:30etan, Citizen Kane eta Hardflip taldeen eskutik. Beti bezala, norbaitek barran txandaren bat egiteko gogoia balu, beldur gabe esan dezala.

Uda garaian zine foruma ere izango dugu etxeluzen. Asteartero filmak, dokumentalak eta laburmetraiak eman- go ditugu, guztion artean gozatu eta, hala sortuko balitz, eztabaidatu ditza- gun. Aukeratutako pelikulen gehien- goa, gainera, euskal zinema izango da.

■ **Etxeluze Gaztetxeko Asanblada**

ZORIONAK!

Karkarak 25 urte

I 989an jaio zen KARKARA. Sanpedroetan plazaratu zen lehen aldiz- karia, aldizkariaren lehen alea.

Hogeitabost urte bete ditu aurtengo festetan. Mendelaurden honetan jende andana pasa da KARKARATik; sortzaile taldetik hasita gaurko lan talderaino. Langile asko, baita beti alboan izan di- tugun laguntzaileak eta babesleak. Be- rek emandako babesagatik ez balitz KARKARAK ez lituzke urte hauek guztiak egingo.

Festen iragarle zen hasiera batean KARKARA. Sanpedroetan sortu, San Ni- kolaz jaietan bigarren alea atera... eta horrela, festaz festa. Harrera ona me- dio hilabetekari bilakatu zen; ondoren, hamabostekari; eta gero, berriz, hilabe- tekari. Paperekoa hilean behin duzue zuen postontzietan eta orainkaria une- oro berritzen da.

Berritzea derrigorrezkoa da bizi be- rritzeko, eta beharrezkoak dira zuek bezelako irakurleak. Ospatu dezagun, beraz, guztiok batera, 25. urteurrena! Guztiok egiten baitugu KARKARA!

JAIOTAKOAK

■ Eritz Itxaso Barrenetxea, Donostian, ekainaren 1ean.

■ Intza Unanue Ortega, Orion, ekaina- ren 2an.

EZKONDUTAKOAK

■ Ainhoa Uribe-Echeverria Arrese eta Imanol Agirretxe Arruti, Orion, maia- tzaren 31an.

■ Maialen Garate Illarramendi eta Jon Juaristi Arruabarrena, Orion, ekainaren 7an.

HILDAKOAK

■ Inaxio Illarramendi Irure, Aian, maia- tzaren 28an, 66 urte.

■ Monica Salaberria Etxabe, Orion, ekai- naren 6an, 101 urte.

■ Rogelio Perez Azcona, Orion, ekaina- ren 7an, 70 urte.

■ Frantzisko Azkue Etxeberria, Aian, ekainaren 12an, 85 urte.

■ Edurne Zabala Oriden, Orion, ekaina- ren 19an, 78 urte.

■ Benigna Salsamendi Alkain, Aian, ekainaren 22an, 88 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoan- garria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

Kontra azaleko argazkia

Pako Mari Fondo Marin, 1967.

APIRILEKO KRONIKA



Danbolin Musika Eskolako dantza emanaldia. KARKARA



Munduko dantzak ikusgai Kultur Aniztasunaren Jaian. KARKARA



Suaren inguruan dantzan. KARKARA

Amaierak hasiera

Amaierekin hasi zen ekaina: lainoek, euriak eta hotzak eguzki eta beroari tokia egitearekin batera, bukaera ugari izan dira Orion eta Aian. Bukaerek, ordea, zerbait berriari irekitzen diete bidea.

Orioko Udalak ostiraletako emanaldiei aguresan die Igela-ren Banda eta Kalakanen kontzertuekin.

Ikastetxeek ere, kurtso bukaera ospatu zuten; ekainaren 7an Oriokoek eta 14an Aiakoek. Ikasturtea amaitzearekin batera, Orioko Curriculumak Sortzen taldeak fase bati amaiera eman dio orain arte egindako lanaren aurkezpenarekin.

Danbolin musika eskolakoek, beste urte batez eman diote azken ukitua beren eginbeharrei. Dantzako ikasleek hilaren 14an jarri zituzten gorputzak mugimenduan guraso eta familiakoen aurrean. Instrumentuetako ikasleek astebetzez beren eskuetan zegoen musika atera eta Kultur Etxeko areto nagusia melodiaz bete zuten.

Euskaldun guztien esku dagoena erabakitzeko eskubidea dela aldarrikatzen zuten giza katearen antolatzaileek. Aia eta Orioko 300 pertsonak eman zioten eskua elkarri Deskargako portuan.

Eskuak zabalduta jaso zituzten Aniztasun Jaia-aren antolatzailerik bertaratu ziren guztiak. Munduko txoko desberdinetako janari, edari, musika eta dantza izan ziren motore. Munduko dantzariek Euskal Herriko gaztetxoek pasa zieten oholta gainera testigua. Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren lekuko izan zen Karela, eta Patxi Olidenen omenaldikoa Ikastolako pergola.

Pergolan, urteko egun luzeena eta gaurik laburrenari ohore egin zieten suaren inguruan sorginek. Udaberria amaitu da, eta uda hasi. Uda, eguraldi ona eta jaiak. Jaiak izan dira Anibarko Portuan, eta festa giroa aprobetxatu dute auzoko elkarte berria aurkezteko.

Auzoak auzo, jai giroan daude Aiako etxarteak. Sanjuanak izan dira Iturrioren, eta sanpedroak Elkanon eta Andatzan, guztiak erromeria giroan. San Pedro jaiak Orion ere, ekaina amaitu eta hondartza denboraldiari ongi-etorria emateko.

San Pedoren izenean ez ezik, KARKARAren izenean ere festa aurtien. Duela mende laurden atera zen 1. zenbakia; 352 ale eta 25 urte geroago, badago zer ospatu. Horregatik gaur eta bihar gurekin ospatzera gonbidatzen zaitugu, Aian eta Orion egingo ditugun ekitaldietan.

Zer da zuretzako KARKARA? Zer eman dizu 25 urte hauetan?



“Ulertzen ez dudan arren, asko gustatzen zait.”

Ezin izaten dut KARKARA irakurri euskara hutsean delako, eta nik, soilik gaztelaniaz egiten dudalako. Dena den, bada jendea euskaraz hitz egiten duena baina irakurtzea kosta egiten zaiona. Idatzitakoa ulertzen ez dudan arren, gustatzen zaidan aldizkaria da, herriko albistean lantzen dituelako eta argazki ugari agertzen direlako. Hori atsegin dut, argazkiak begiratu ditzakedalako. Ohitura daukat argazkiak ikusteko.

Etxean euskara ez dakien bakarra naiz; gainontzeko guztiek euskara dakite eta KARKARA irakurtzen dute. Asko gustatzen zaien aldizkaria da, gertukoa baita.

Joaquina Cambero Vivas

Jubilatua




“Batzuetan presentzia gutxiegi dugu auzoetakoek”

Auzo batekoa izanik, Aiako Andatza auzokoa, eskertzekoa da auzoetako gauzak ekartzea eta horiek lantzea; baita herriko albisteak argitaratzea ere. Halaber, batzuetan itzalean gaudela iruditzen zait, presentzia gutxiegi dugula auzoetakoek. Pixkanaka-pixkanaka ari gara gehiago azaltzen, eta hori ona da. Horrez gain, noizen behin, albisteak arin tratatzen direla uste dut.

Halaber, oro har, beti irakurtzen dudana aldizkaria da KARKARA. Kontu txiki horiek salbu, gustatzen zait egiten duzuen lana. Jariora duen aldizkaria da, albiste asko sartzen dituen, eta hori ondo dago. Atsegin dut

Arkaitz Iruretagoiena

Igeltseroa



“Gehien gustatzen zaidan atala Udalaren Txokoa da”

Beti irakurtzen dut KARKARA, herrian gertatzen diren gauzak herriarrei jakinarazten zaizkielako. Aldizkari honetan hainbat gauza jarri ez balira, herriko jendea ez litzateke informatua egongo herrian gertatu dituen gauzetaz.

Bestalde, ideia ona iruditzen zait elkarrizketak, garai bateko argazkiak, kritikak eta horrelakoei lekua egitea. Baina, niri gehien gustatzen zaidan atala Udalaren Txokoa da, informazio garrantzitsuen hor joaten dela iruditzen zait eta. Herrian galdezka atala ere egokia dela uste dut, herriko jendearen iritzia jakiten baitugu. Dena den, hori bakoitzaren gustuen arabera da.

Julen Alonso

Ikaslea

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

“Astakeria juridiko bat da, bultzada politikoa izan duena”

Jakes Goikoetxea

Berria egunkariko erredaktore burua

Ikasketak amaitu aurretik hasi zen Egunkarian lanean Jakes. Kazetariei ardura eta gestio postuak hartzea kosta egiten zaiela dio. Azkenaldian, ordea, erredakzioa koordinatu eta Berriako puzzlea egiten aritzen da bezperako arratsaldeetan, guk biharamun goizean zer irakurtzeko aukera izango dugun erabakitzen.

TESTUA: RIKARDO UZKUDUN

ARGAZKIAK: KARKARA

Ematen zuen Egunkaria auzia bukatu zela. Epaileak auzi ekonomikoa amaitutzat jo zuen, eta auzipetuek libre geratu behar zuten, baina fiskalak helegitea aurkeztu du. Nola bizi izan duzue urte hauetako kalbarioa?

Gaizki, auzipetuek batez ere. Ez da erraza azaltzea. Fiskalak helegitea aurkeztu ez balu ere, sekulako sentimendu nahasketa bizi genuen: neurri batean gustura geunden, ematen baitzuen kapitulu hori itxi egiten zela; baina gero, hobeto pentsatzen hasi eta jabetzen zara epaileak ez zituela absolbitu, ez zuela esan errugabeak zirenik, delituak preskribatu zirela baizik. Egin ez duten delituategatik preskribitu da auzia, denbora pasa delako. Baina errugabe izendatzeko epaiketa egin beharko litzateke, eta epaiketako tragoa ere pasa egin behar da!


Zukez duzu deliturik egin, atxilotu zaituzte, inkomunika-

tuta eduki, -128 urteko kartzela zigorra eta 221 milioi euro-tako kalte-ordaina eskatzen dute-, pasatzen dituzu hamar urte baino gehiago kontu honekin bueltaka... ba imajinatu: gastuak, ezinegona, familia, denbora osoan kontu bera buruan duzula... Eta gainera epaiketa.

Jaurlaritzak berak ere, PSE gobernuan zegoela, esan zuen diru kontuak ondo eramaten zirela, akusazio partikularra -AVT eta Dignidad y Justicia- epaileak epaikatik kanpo utzi zuen, eta hala ere fiskala tematu egin zen... ba pentsa! Zuk deliturik egin gabe, hori dena pasata eta epaia preskribituta gustura zaudela esan behar duzu!

Baina amesgaiztoak jarraitzen du, azkenean fiskalak helegitea aurkeztu du.

Astakeria juridiko bat da, bultzada politiko bat izan duena, bestela ez dauka ez hankarik ez bururik! Prozesu guztia ulertezina da. Egunkari bat itxi da, euskal kulturen erreferentzia den jendea atxilotua izan da, batzuk torturatuak, batzuk kartzelan ere egon dira... eta ez da ezer pasa!



Ikusten al duzu aldaketarik Espainiako justiziaren jokabidean? Oraintxu Jarrai-Segiko 40 gazte absolutu dituzte.

Kontua da zein epai mahai tokatzen zaizun. Kasu horretan, komentatzen zenez, aukera asko zituzten libre geratzeko. Aldiz, beste sumario batzuetan, epaimahaiaren osaketagatik, seguruenera, zailagoa izango da.

Gaia aldatuz, hitz egin dezagun Berria berrituaz. Duela gutxi interneteko webgunea eta paperezko diseinua estreinatu dituzue. Zer lortu nahi izan duzue?

Kazetariak webgunean ere lan egin dezaten indartu nahi genuen. Garai batean, kazetariak paperera bakarrik dedikatzen ziren. Gero, logikaz, kazetariak ere Internetarako ere idazten hasi ziren, baina prozesu hori indartu nahi genuen, erredakzioak gehiago emateko Internetera begira.

Bestetik, webgunearen itxura ere aldatu nahi genuen, urte batzuk bazituen, eta zaharkitu xamarra zegoen.

Eta paperarena, geroztik etorri den beste prozesu bat izan da, eta helburua da ahalik eta periodiko hoberena eskaintzea. Gogoeta prozesu bat egon da: aurreko Berria aztertu da, eta baliabide gutxiago genituela jakinda, erreforma sakon samarra egin dugu. Produktuari eman nahi genion halako astindu bat. Eskaintza hobetu, ordenatu eta osatu nahi genuen.

Bestetik, adituen iritzia eta harpidedunen inkestak kontuan hartuta, egunero zerbait desberdina eskaintzen saiatu nahi dugu, zerbait propioa, atentzioa emango duena. Horrek ez du esanahi lehen egiten ez zenik, baina orain mami gehiago eta ordenatuago eskaintzen dugula uste dut. Igandetan apustu handia egin dugu, egunkaria aldizkari bihurtu baitugu neurri batean.

Zer harrera izan dute?

Bada, edukiari dagokionean, jaso ditugunak nahikoa ondo. Egia da, batzuetan gu gure burbuilan bizi garela, eta ez dugula ondo jakiten zein den irakurleen iritzia. Azalei dagokionez, jendeak zalantza gehiago ditu, ausartegiak ez ote diren!

Webguneari dagokionez, harrera ona izan zuen, itxura garbiagoa zuela etab., nik uste asko irabazi duela. Bisiten kopuruak %11,4 igoera izan du bi hilabeteetan. Twitterren, adibidez, gaur egun 25.600 jarraitzaile ditugu, eta lehengo urte hasieran 13.321 genituen.

Eta, galdera da, Berria webguneko edukiak bisitatzea debalde dela jakinda, nola atera etekina horri? Nondik atera baliabideak?

Berriak, irizpide moduan, ezarria dauka Interneteko edukiengatik ez duela kobratuko, momentuz. Horrek ez du esanahi hemendik urte batzuetara gauzak aldatuko ez direnik. Nola egin aurre webgunea elikatzeak daukan gastuari? Berriak martxan jarri zuen, horretarako ere, Berrialaguna figura. Filosofia da: prest egongo al zinake urtean diru ekarpen bat egiteko horrelako proiektu batek iraun dezan? Eta, egia esan, egundoko arrakasta izan du. 2013ko amaieran 4.783 Berrialagun genituen, urtebeteen %17 gehiago. Gainera, Berrialagunaren figura ez da soilik diru ekarpen bat egiteko, gehiago da; komunitate bat sortzea da gure helburua; euskararen inguruko komunitatea osatu nahi dugu.

Eta gaia Orio eta Aiara ekarriz. Horrelako herri euskaldu-



“Kazetaritzak eskatzen du informazioa kontrastatzea. Gaur egun, izugarrizko arriskua dago aurreneko kolpean hanka sartzeko”



nak izanda, zergatik ez da, oraindik, gehiago saltzen Berria?

Ez daukat datu gehiegi, ez dakit zenbat harpidedun dauden. Egunkaria erosteko ohiturak oso sendoak izan ohi dira, asko kostatzen da joera horiek aldatzea. Gaur egun, kontu batzuetan konpetentzia egitea oso zaila da. Pertsona batzuk egunkarietan informazio konkretu bat bilatzen dute, eta Berria ez da iristen. Horrez gain, izan liteke jendea oraindik ez dagoela ohituta euskaraz irakurtzera; Berria are gutxiago, euskara batuaren kontuak direla eta. Gehienek ez dute produktua ezagutzen eta ezagutzen duten batzuei, ba, agian ez zaie erakargarria egiten.

Orain, kanpaina bat martxan jarri da UEMAko –Udalerri Euskaldunen Mankomunitate– herritarrek 15 egunean Berria doan jaso dezaten. Horrek lagundu dezake.

Zertaz hitz egiten ari gara? Reala, eskelak eta abar?

Bai Reala, eskelak, informazio lokala, oso gertukoa... eta Berria egunkari nazional bat izatean gai batzuetara iristen da, baina beste batzuetara ezin dugu. Alde horretatik hutsune bat daukagu. Eskualdetako Hitzekin osatzen saiatzen gara.

Oriok eta Aiak dituzten euskaldun kopuruak ikusita, harpidedun gehiago izan beharko lituzke. Hala ere, esan beharra dago, Orion kanpainak egin direnean, bai Berrialagunak biltzeko zein akziodunak biltzeko, oso harrera ona izan zutela. Eta jende horri eskertu behar zaio egiten duen ahalegina. Sozialki babes hori sentitzen dugu.

Bestetik, medio tradizionalei kostatzen zaigu gazteak erakartzea. Ez dute paperezko produkturik kontsumitzen, eus-

karri digitalen bidez informatzen dira. Nola erakarri? Nola egin horientzako informazio erakargarria? Konplikatu da. **Alde horretatik, ikusita denetariko tramankuluak ditugula, pantailak ezker-eskuin, sare sozialak... nola ikusten duzu informazio zaparrada hori?**

Horrek inoiz baino jende gehiagorengana iristea ahalbidetzen digu, gure edukiak batetik bestera bueltaka ibiltzea Kazetaritzari dagokionez, kazetaritzak eskatzen du informazioa kontrastatzea. Gaur egun, izugarritzko arriskua dago aurreneko kolpean hanka sartzeko, norbaitek sare sozialen batean zerbait esan duelako. Iturria baloratzea da kontua, iturri horrek konfiantza ematen dizun edo ez, erreferentzia-lan den edo ez, eta kazetarioen lana kontrastatzea da.

Eta etorkizuna? Nondik joango da?

Alde batetik, jendeak bestelakorik badio ere, papera oraindik ez dago hilda, hemen behintzat. Berriaren kasuan adibidez, gure oinarria eta sostengu ekonomikoa paperezko egunkaria erosten duten harpidedunak dira. Hori gabe, ezingo genuke Interneten ezer egin! Hala ere, egia da gure harpidedunen batez besteko adina gora doala eta belaunaldi berrietan Interneteko bertsioak askoz ere garrantzia gehiago duela.

Informazio zaparradari dagokionean, uste dut, norberak izan behar duela jarrera kritikoa, zuhurra behintzat. Gauzak tentuz irakurri behar dira, eta kontu batzuk dudatan jarri.

Batzuetan, kazetarion aldetik, joera paternalista hartzeko tentazioa izan dezakegu: Jendeak ulertuko du hau? Baina jendea ez da tontoa, eta Euskal Herrian, beste herrialde batzuekin konparatuta, ohituago dago jarrera kritikoarekin irakurtzen. Igual egoera politikoak horretara behartu duela, oso ohituta dago mutur bateko eta besteko informazioa irakurtzen. Tarteko bideetan ibiltzen ohituago.

Eta, itsaso honen erdian, Karkarak 25 urte. Barruan ibilia zara, aspaldi honetan kanpoan. Nola ikusten duzu?

Nik uste dut Karkarak pauso ausarta eman duela. Zalantza garaiotan gauza berriak egitera ausartu behar da eta Karkarak arriskatu egin du. Interesantea iruditzen zait eman den aldaketa. Kalidadearen aldekoa dela esango nuke: Elkarrizketak, analisiak, iritziak... jendeari plaza bat eman eta bultzatzea gauzak kontatzera. Ondo ikusten dut. Aitzakiaren bat jartzekotan, Karkarak Udalaren eta Udaleko martxaren jarraipen estuagoa egin behar duela uste dut, herritarrei zuzenean eragiten dieten erabakiak direlako.

Gero, beste kontu bat da Internetekoa. Ez dakit karkara.com-ek lortu duen erreferentzialtasuna oriotar eta aiarrengan. Hor ikusten dut herren Karkara.

Paperean ez, nik uste dut Karkara badela erreferentzia inportante bat herrian, baina ez dakit jendeak behar bezala estimatzen duen. Zalantza hori badaukat. Nik Karkaran lan egin nuen garaian faltan ematen nuen jendearen parte hartze handiagoa. Ez dakit hori aldatu den.

Nik Karkara izan nuen kazetaritzako lehen eskola eta Karkarako beteranoak irakasle. Asko estimatzen ditut herri aldizkariak. Tamainaz txikiak izan arren, oso kazetaritza ona egin daiteke herri aldizkarietan, eta munduko gaiak ere ekarri daitezke gurera.



Idurre Lizarralde

Oroitzapenak



rain dela bi aste eskalatzen ibili ginen Eginon eta hurrengo irteera, eguraldiak laguntzen badigu behintzat, arroila jaitsiera izango da. Larunbatean Artazulen eta igandean Lezen. Probatu nahi?

Aspaldiko lagunekin egoteko eta lagun berriak ezagutzeko aukera paregabea, giro ezinhobea eta parrillada bikaina! Besterik behar al da ba?

Bai tira, ezinbestekoak: federatuta egotea eta gogoa izatea. Gainontzekoa: materiala, garraraia, argibideak, laguntza... horretaz ez arduratu!

Talai Mendiren hurrengo irteeren propaganda egiteaz gain –herrian zehar ere kartel batzuk ere ikusiko zenituzten–, aipamen batzuekin nahiko nituzke.

Orain dela urte batzuk hortxe ibiltzen ziren, beti saltsan, Kimetz, Iñaki, Boron, Iban, Iker.... Bilerak antolatu, aterpetxeetara deitu, irteerak martxan jarri... Patroi lanetan ibiltzen ziren; eta gu, gazteagoak ginen garai horietan, atzetik

segika gure ilusio eta grinarekin, kontu kontari eta barre algaraka, gozatzen. Berak non, gu han. Gu atzetik, gogotsu eta ilusioz beteta. Asteburua iristeko zain beti, *zer egin behar dugu gaur?* galdetzen genion gure buruari. Eta beti genuen plana: eskiatu, mendi buelta oinez, eskalatu, arroila jaitsi, bi-

zikleta... Hartu trasteak

eta martxa! Orduan, orain bezala, Antonio beti saltsan; eta Dani eta Mila ere bai, nola ez.

Garai hartan, gazte eta heldu, tropelean elkartu eta hara eta hona ibiltzen ginen, parrilla eta guzti!

Zeinen ondo pasatzen genuen, ze oroitzapen onak! Oroitzapenak pilatzen jarraitu nahiko nuke, lagun berriak ezagutzen, bide berrietatik galtzen eta frontaletako argia pizten... Zahartzen ari garela seinale izango ote da?

Nahiz eta urteak aurrera joan, inguruan beti dago geldirik egoten ez den neska kuadrila bat eta askotan esaten diedan bezala....Egurraaaa! Azken hauekin ere, abentura mordoa bizi izan dut, aupa zuek!

Patroi lanetan ibiltzen ziren; eta gu, gazteagoak ginen garai horietan, atzetik segika gure ilusio eta grinarekin, kontu kontari eta barre algaraka, gozatzen. Berak non, gu han.





Jon Sarasua

Eskala txikian

Sortu zenetik bere ibilbidean bi gauza gustatu zaizkit: kazetaritza ausart xamarra egin du, eta ez-partzialtasunera hurbiltzen saiatu da. Bi horiek batera egitea ez da erraza.

Kazetaritza ez dago sasoirik onenean. Ez naiz ari internetek eragin dion lurrikaraz, edo he-dabide-taldeen fusioez, edo irudiaren saturazioaz edo paperaren gainbeheraz. Bestea da okerragoa: ikuspegi ikertzaile eta autonomoa eskatu da kazetaritzan. Begiratu subjektiboa, inplikatu, emozionala modan jarri zen, eta ildo horrek nolana hiko kazetaritza justifikatzen du gaur egun. Aspaldi ikasi genuen objektibotasuna ezinezkoa dela, denok begiratzen dugula nonbaitetik. Baina horrek ez luke ipar bat ahaztu arazi behar: ahal den neurrian ez-partziala izateko ahalegina.

Inpartziala ez den ez-partzialtasun hori bilatzea zaila da. Nortasun propioa lantzea eskatzen du, lana eskatzen du, eta esker txarrekoa da askotan. Denak gustura uztea zaila da. Inor gustura ez egotea, askotan, seinalerik onena.

Horretan estimatu izan dut KARKARA. Sortu zenetik bere ibilbidean bi gauza gustatu zaizkit: kazetaritza ausart xamarra egin du, eta ez-partzialtasunera hurbiltzen saiatu da. Bi horiek batera egitea ez da erraza. Herri-albizkari gehienek lehenbizikoan hutsegin dute: denen gustoa egin nahian, gai beroak saihestu izan dituzte askotan, kazetaritza kamutsa eginez. Kazetaritza zorrotza, aztertzailea, eta aldi berean ez-partziala egitea arte bat da. Horretara pixka bat hurbildu dira Orion aldizkari hau sortu eta zaindu dutenak. Izan dira bestelakoak ere. Aiako moja-etxeari buruzko erreportajea, adibidez, egin behar ez denaren adibidea izan zen. Oro har, ordea, eskala txikiko kazetaritza ona iritsi izan zait hilero buzoira. Hogeita bost urtez alajaina.

Bada beste galdera bat ere airean. Euskarazko prentsaren begiratuak alderdi politiko baten kolorea izan behar du, ala posible da sentsibilitate politiko desberdinak zeharkatuko dituen tonu autonomoa? Erantzunak erraza dirudi, baina ez da. Euskarazko egunkari eta aldizkariak, praktikan, ari dira erantzuten, eta erantzun txarrena erdipurdikoa da. Erantzun bat eman eta zeharka bestea egin. Euskal komunitatearen korapiloetako bat izango da. Korapilo hori askatu gabe dago eskala handiko prentsaren. Eskala txikiko prentsaren esperimentatu litezke bide-erakusle egokiak. Landu egin behar tonu propioa, ikuspegi beregaina, zorrotasun zeharkatzailerik, kazetaritza tentsioduna. Nor animatzen da KARKARAREN mende-laurdena ikuspegi horretatik ikertzeraz? Ala gazteak, gai honekin doktore-tesi dotorea egin liteke.

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Aletxeak automatizatuak

60 urte zerbitzu ematen

943 83 17 74

Arantzaz, 11 - 48940 OLEA

Kinokladenda - Uma arropa

argine

www.lesoniel.com/argine

Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA

UGARIEN TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU

jatetxea

Andatza auzoa AIA

Tel. 943 83 45 21

G A O N

T A B E R N A

ENTRADA

Plaza Konbina

943 83 06 09

Bertso txiki bat bota nahi nuke...

Aitaguria eta agurmaria tartean, hori kantatzen genuen Mariama-estrarenean txikitan, eta horrela ikasi genuen oriotarrak ginela eta euskaraz egin eta egiten jarraitu nahi genuela. Euskaldunak eta oriotarrak ginelako sortu genuen KARKARA 1989an. Asmo, gogo eta nahi mordoak joan zaizkigu 25 urteetan, beste lan pila batekin lotuta, KARKARA egiten; baina, zalantzarik gabe, emandakoa baino askoz ere gehiago jaso dugu han ibilitakoek.

Euskara gero eta bide zabalagoetan ibili zedin bultzatzeko sortu ziren herri aldizkariak eta KARKARA saiatu zen lan hori egiten Orion: euskaraz letzen ikasten joan ziren gure irakurleak, guk aldizkari bat nola egiten zen ikasten genuen bitartean.

Gaurko KARKARA ez da aldizkari bat soilik, harekin batera, atari berritu eta bizi-bizia ere sarean du eta euskaraz irakurtzen ez ezik, idazten ere ikasi dugu oriotarrok KARKARAREKIN: Herria sortu nahi dugulako elkarrekin euskaratik eta euskaraz. Belaunaldi oso bat dugu eskolan eta ikastolan euskaraz alfabetatua; KARKARAREKIN batera, *Berria* eta *Hitza* ere baditugu.

Baina –ederra bertsoa!– gaztelaniazko egunkariak dira erosi eta irakurtzen ditugunak...



Ana G. de Txabarri

“Baina, zalantzarik gabe, emandakoa baino askoz ere gehiago jaso dugu han ibilitakoek”



Pat Cowie

Nongoa naizen esanaz... Eskoziatik etorri nintzenean, dena bat zen: euskara ikasteko ahaleginak, ingeleseko eskolak eta KARKARAREN jaiotza. Goitik behera irakurtzen nuen txuri-beltzeko aldizkaria, publizitatea barne! Altxor bat niretzat; horixe behar nuen Orio eta Aia hobeto ezagutzeko, eta euskaraz. Estimatzekoa zen orduko KARKARAKIDEEN lana, are gehiago zituzten medioak ikusita.

Denbora pasa ahala, euskara galtzen hasita nengoela konturatuta –etxean eta klaseetan ingelese soilik erabiltuta–, hasi nintzen lantxo batzuek egiten KARKARAN, merezi zuen proiektua zelakoan eta on egingo zidalakoan: euskara lantzeko, jendea ezagutzeko, herrian onartua sentitzeko, hizkuntzaren alde nire aletxoak jartzeko...

“Hamaboskari izateko saltoa egin zenean, pasio sutsu bihurtu zen nire KARKARAREKIKO harremana”

Hamaboskari izateko saltoa egin zenean, pasio sutsu bihurtu zen nire KARKARAREKIKO harremana: idazteko ikastaroak; ordu guztiak emanda; Ritxi, Olatz, Eneritz, Patxi... bi delagun, eta, zer esanik ez, Jabi, Ana eta Miren, nire guruak! Ordurako, Mac ordenagailua genuen eskura, alajaina!

Gaur egun, gazteek hartu dute lema, eta ni uberan jarri naiz, izurdea bezala, haiengandik gertu, disfrutatzen. Web orrian, Twitteren, Facebooken edo paperean irakurrita, badakit zenbat lan egiten den, zer den KARKARA bi herrientzat, zenbat bali duen aldizkariak luzaz irauteak. Pozik, harro eta bete sentitzen naiz: ... Horregatik bizi guztian mintzatu nahi dut euskaraz.



“Proiektu aitzindari baten emaitza izango da San Juan baleontzia”

Esteban Gozategi

Arotza San Juan Baleontzia eraikitzen ari da

Aitaren pausuak jarraitu zituen Esteban Gozategik. Egurrari eta ontzigintzari lotua egon da betidanik. San Juan baleontzia eraikitzen ari da egun, baina berarentzat berriak diren teknika zaharrekin.



Eraikiko duten San Juan baleontziaren maketa. KARKARA

OLATZARTOLA

Denboran atzera egin, 449 urte. Pasaia-rik irten zen San Juan baleontzia jomuga Kanada zuela. Butuseko badian ainguratu eta hilabeteko lanaren ondoren, mila barriketako zama barruan zuela, ontzia hondoratu zuen ekaitz bortitz batek. Lau mende beranduago, 1968an, Kanadako arkeologoe-
k egindako azterketen ondorioz, San Juan baleontzia berreraikitzen ari dira Pasaian.

1565ean Pasaia-ko portutik irten zenaren berdina, gainera.

Erreplika egiten ari gara; garai hartan erabiltzen zen materialarekin eta teknikaren ari gara lanean. Hasieratik bukaeraino, berdina-berdina ari gara baleontzia eraikitzen.

Garai hartan kostaldetik mendialdera milaka langile zituen industria-sarea zen arrantzarena.

Gu ere mendian hasi gara lanean, basoan eman ditugu lehen pausoak. Beharrezkoa genuen materiala bilatu ondoren jaitsi ginen kostara, baina hemen ere prozesua luzea da: planoak egin eta horiek eskalan handitu ostean hasi baikara egurrarekin lanean.

Sakanako haritzetan aurkitu dute ontziaren hezurdurara-ko egurrik egokiena.

Zuhaitza landatzen den momentuan hasten zara ontzia egiten, forma jakin bateko piezak behar baitituzu, egurrezkoak. Gila *-Quilla-* haritzarekin zegoen egina eta hori berria zen guretzat, baita gilaren forma ere. Ordura arte zuzenak ziren eta honek arrainaren forma dauka.

“San Juan baleontziak egin zuen ibilbide bera egin dezan nahi dugu. Pasaia-rik abiatu eta Ozeano Atlantikoa bi hilabetez zeharkatu ondoren, Red Bay badiara ailegatzeara da helburua”



San Juan baleontziaren planoak. KARKARA

Sakanara bakarrik ez, Burgosen ere izan zarete.

Brea egiten dute bertan; garai batean egurra mantentzeko erabiltzen zena, alegia. Egun pintura erabiltzen da horretarako; baina guk, galipota erabiliko dugu.

Ontzia antzinan bezala eraikitzen ari zarete. Zuretzat esperimentzia berria da, ezta?

Urte asko daramatzat ontzigintzan lanean: lehen Orion egiten nuen lan arotz gisa eta egun hemen. Jakituria izatea lagungarria da baina prozesuan bertan ikasten ari naiz, horrela ez baitut inoiz ontzi bat eraiki. Proiektu berezia da, ikusgarria, sekula ez baitugu horrelakorik ikusi eta aurrerantzean ez dugulako ikusiko.

Gaur egun egurrarekin ez da ontzirik egiten. Hondarribian badago bat, baina gainontzean...

San Juan sortzen zoazten denboran, ordea, ikusteko aukera izango da.

Prozesu guztia ikusteko aukera izango dute: Sakana bisitatzeko aukera eta Ondartxo ontziola ikustekoa. Pasaian egurra nola lantzen dugun ikusiko dute, eta hori polita izango da, ezezaguna baita askorentzat. Galduta zegoen hori berreskuratzen dugu proiektu honekin eta jendartera zabaltzea ezin bestekoa da, bere ere ezagutu dezaten.

Ekainaren 25a geroztik ezagutu dezakete...

Inaugurazioa asteazkenean izan zen, eta ordutik daukagu erakusgai egiten duguna. Museo moduko bat egongo da eta bertan dokumentazio lana, planoak, maketak... guztia ikusi ahal izango da. Prozesu guztia ikusteko aukera dago, baita la-

nean nola aritzen garen ere. Proiektu aintzindari baten emaitza izango da San Juan itsasontzia, hortaz, egiten duguna plazaratzea garrantzitsua da. Itsasoari oso lotua baitago Euskal Herria, itsasoari asko eman diogu eta itsasoak asko eman digu.

Ezagutarazteaz gain, erabilera eman nahi zaio?

Duela 449 urte San Juan baleontziak egin zuen ibilbide bera egin dezan nahi dugu. Pasaatikabiatu eta Ozeano Atlantikoa bi hilabetez zeharkatu ondoren Red Bay badiara ailegatzea da gure helburua. Behin lan guzti hau eginda ez dugu hautsa hartzen utzi nahi, ez dugu erakusketarako soilik erabili nahi.


Donostia 2016 ekimenaren parte da San Juan baleontzia eraikitzea.

2016ren helburua itsas kultura eta ondarea aktibatzea da, bereziki baleontziaren erreplika eraikitzearen bitartez. San Juan baleontzia izango da Donostia 2016ren ur gaineko Kultur Hiriburua.

Hiriburutza proiektuaren oinarri eta balioekin bat egiten duzue, ezta?

Elkarbizitza, parte-hartzea eta eraldaketa dira proiektuaren ezaugarri nagusiak. Jende askoren parte hartzea behar du proiektuak eta guztion ari garaosatzen San Juan baleontzia. **Eta zu proiektuaren pieza bat gehiago izanik, pozik egoteko moduan zaude.**

Gustatzen zaidana egiten ari naiz eta inoiz egin ez dugun moduan, gainera. Berezia eta polita da oso, eta ni oso gustura nago.

ARGAZKI ERREPORTAJEA**150.000 han izan ziren**

Eskuz esku sortutako kateak soka luzea ekarri du, he-
dabide askoren orrialdeak bete eta historiako liburue-
tako pasarte bat idatzi baitu. 150.000 pertsona izan
dira istorio honen protagonistak, eta horietatik 300
pertsona inguru Orio eta Aiakoak. 123 kilometroko
ibilbidea motz geratu zen, parte hartzaile kopuruare-
kin bi bider egin zitekeen eta.



Hiru autobus ilusioz eta emozioz beteta

Ekainaren 8an Durango eta Iruñea giza kateak lotu zituen. Erdibidean, 42. kilometroan, bildu ziren oriotarrak eta aiarrak trikitixa jotzen eta melodiari hitza jartzen. Kantuan eta dantzaz ibili ziren giza eskubidearen aldeko aldarria umoreko egiten. Etxera buelta hunkituta egin zuten.



ARGAZKI MUNDIALA



Baserriko lan-tresnen garapena: atzo eta gaur

Baserri mundua ere galanki aldatu da azken urteotan. Teknologia asko erraztu du nekazari eta abeltzainen jarduna. Azkar ahaztu ditugu gure arbasoen lan-tresnak. Gazte gutxi jakingo du zer den lakaia edo gaitxerua: babarrunak eta bestelako uzta zenbatzeko neurriak dira lakaia -3 kilo-, lakai-erdia -kilo eta erdi-, iminia -12 kilo-, gaitxerua -25 kilo-, anea -8 lakai, 24 kilo- eta anea -16 lakai, 48 kilo-. Argazkikoak Joakin Lertxundi Irigoienek dira. Olatxo baserriko ganbaran gordeta zeudenak eredu hartu eta bereak propioak egin dizkio iloba Martin Peronak. Lehengo garaiei txoko berezia egin die Lertxundik bere ganbaran eta nola ez, han ditu lakai eta gaitxeruak.

KARKARA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Ekaineko sarituak

Jurdana Arregi

Arkaitz taberna

Maite Azkue

Gabon taberna

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



Erria erronka!

Euskarazko hiztegi peto baten demandan nator ni. Erriatu eta txikot bezalako hitzak jasoko dituen, zikin-brillo, toloarena jo, osti bat eta putzura bezalako esamoldeei ere erreparatuko diona.

Elometroak eguneko Erria txikota! aldarriak arrakasta dezentea izan du bazterretan. Kode sekretu baten itxura du, Sesamo ezagunaren oihartzun halako batena. Jendeak badaki euskara dela, baina zer esan nahi duen, apenas. Hain herrikoia dena gutxi, hemendik kanpo inork ezagutzen ez! Erria, erria! Oriotar hauek zer dira bajaten aparte ematekoak...

Ana Maria Echaideren *Castellano y vasco en el habla de Orio* liburuak jasotzen du txikota hitza, baina erriatu ez. Liburuak, Orioko euskal hiztunen erretratu bat, 1968 urtean ikusi zuen argia. Ordu arte, dezente ziren han-hemen egindako hitz-bilketa sektorialak -arrantza, artisautza, artzaintza...-, baina herri jakin bateko hiztegia biltzen zutenak, gutxi; bertako hizkera aztertzen zutenak, are gutxiago; eta Echaideren zehaztasun akademikoarekin eginak, apenas.

Oriotarrak euskara galtzen ari ziren, eta Echaideren galdera zen: zer nolako hizkera-bidaia egiten ari dira gaztelaniara? Oriotarren euskarakadak aztertzen ditu, besteak beste, Echaidek: Abuelamantangorri esaten dute gaztelaniaz ari direnean; alpapa, cascañuelas, coloformo, coger daño, gambion, mortzilla, primo pequeño, vombitar... Errubera deitzen diote laster rueda deituko diotenari. Historiaren gurpilean galtzerara doan mundu baten azken arrastoak jasotzen ari da Etxaide. *Oriotarrak gaztelaniara bidean* izan liteke Echaideren argazki bildumaren beste izenburu apropos bat.

Euri asko egin du ordutik, eta euskarari buruzko jarrerak errotik astindu ditu aurreiritziak, konplexuak, kanpolarrosak. Gaurko talaia euskararena eta euskararen barrutik begiratzen duena baita, azken urteotan tokian tokiko hiztegien bilketa asko egin da han-hemen. Eredugarri da Juan Martin Elexpururen *Bergarako euskera lana*. Asko estimatzen dudana beste bat, Begoña Bilbaoren *Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak*. Ugalduegin da herrietako hizkeren bilketa lana, Bizkaian batez ere. Pozik ikusiko nuke Orioko hiztegi bat. Echaiderekin daukagula?

Esan dut euri asko egin duela ordutik: gaztelanian txertatutako euskara aztertu zuen hark. Euskarazko hiztegi peto baten demandan nator ni. Erriatu eta txikot bezalako hitzak jasoko dituen, zikin-brillo, tolloarena jo, osti bat eta putzura bezalako esamoldeei ere erreparatuko diona. Hogeita bost urte hauetan KARKARA halako askoren lekuko eta hauspo izan da.

Urteurrena ondo ospatzeko, erronka batekin nator ni: erria txikota!, eta ea nor animatzen den Orioko euskararen hiztegi bat egitera. Nik aukeran nahiago nuke KARKARAREN berrogeita hamargarren urteurrena baino dezentez lehenago kalera-tuko balitz, Anpolaita ondoko hezur-baratzean atsedean hartu baino lehen.



Anjel Lertxundi

PUBLIZITATEA

OREKA FISIOTERAPIA



**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEFALAK ...**

...
**MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA**

943 13 35 37

ARTZAGA KALEA, 11 BERRIA

INSTALACIÓN DE VENTANAS



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 13 00 77

PERTSIANAK



**Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...**

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LUXARBE

igeltzeritza prokorrak,
denetarik egiten dugu

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

Joana Murgiondo
Aseguru-agentea



ASEGURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

PATXI OLIDEN



Hemengo haragia:
Etxeko produktuek: triptaki, odolki,
txokorri, bozito, krokotaki...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

MIRANDA



tanina, atx, leiho, eskalera...
behar diem aritz larak
egingo ditugu

Udako kalea, 1 4009 42 33 70+ ZARAUZ

Portu ERRETEGIA



Santo Eneka Alzola, 10
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

karrikak, barneko ataria,
arabak orotik erabaki nahi

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. azkera ORIO

Tf.: 810 581 390 - 810 218 221 u-posta:

SEGUROS BILBAO

Grupo CATAL-OCODE

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

tel/fax: 943 89 00 69

Etxeakalea, 4 20800 ZARAUZ



URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

PROPAGANDA KONTAKTUA

SARASUA ERRETEGIA



Plater bereziak:

-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Karkarako kide batzuk erredakzioan, bileran . KARKARA

KARKARAREN lehen pausoak

Orrialde hauetan lehendabiziko KARKARAK nola egin genituen kontatuko dizuet. Gertakari edo pasadizo batzuk gogora ekarri nahi ditudalako eta beste batzuk, berriz, inoiz idatzi ez ditugulako.

ERREPORTAJEA



KARKARAKO lantaldean, mahaiaren bueltan, bilera batean. KARKARA

TESTUA: MIREN ETXEBERRIA
ARGAZKIAK: KARKARA

Herri-aldizkari bat sortzea amesten zuen talde bat bazen gurean, eta askotan elkartzen ziren aldizkariaren edukiari, mamari, helburuari eta beste hamaika konturi buruz hitz egiteko.

Nik hamazazpi urte nituen artean, eta kazetari izatea amesten nuen, puri-purian zegoen saio amerikar batek barko harra piztuta. Hasierako talde horrek, nonbait, kazetaritza ikasten hasiko nintzela jakin zuen, eta galdetu zidaten ea nahi nuen beren proiektuan parte hartu. Jakina, saltsero samarra naizenez, baietz esan nien.

Huraxe izan zen nire abentura partikularren abiapuntua, etabizipenak bizipen, emandakoa baino askoz ere gehiago jaso dut. Gainera, Danimarkaraino ere joan nintzen

arrentzaleekin batera, han ikusi eta ikasitakoen berri KARKARAN emateko. Erreleboa eman genuen, eta harrezkero, jurasikoen taldea esaten diogu geure buruari, eta erreportajea irakurri eta gero jakingo duzue zergatik.

Bilerak

Lehendabiziko bilerak Anaren etxean egin genituen. Ostirletan elkartzen ginen normalean, eta orduan erabakitzen genuen zer idatzi eta nork. Bilera batzuk luzeak izaten ziren eta beste batzuk, berriz, ikaragarri luzeak. Izan ere, hitz egiten zein eztabaidatzen aritzeaz gain, bagenuen bestelako jarduna ere: herriko kontuez kontu-kontari aritu, gitarra jo, dantza egin, abestu... eta eztarriak leuntzeko zerbeza eta beste al-koholdun edari batzuk.

Idazmakina, klik klik!

Adi, gazteok, idazmakina zen gure tresna. KARKARAN lanean



“Idazmakina idazten genituen artikuluak, eta paperean eramaten genuen inprimategira”

“Udaletxeko gela bat utzi ziguten, ordenagailu eta guzti. Imajina al dezakezue zer izan zen hura guretzat?”

ari zaretenok, eta gazteak, oro har, ezetz inoiz idatzi traman-kulu haietako batekin? Halaxe da, bai, idazmakina idazten genituen artikuluak, elkarrizketak eta gainerakoak, eta paperean eramaten genuen KARKARA inprimategira. Orrialde haiekin batera, Anak etxean errebelatzen zituen argazkiak ere eramaten genituen, zuri-beltzean.

Baina aldizkariaren zenbait portada berezi-bereziak izan ziren, eskuz koloreatuta inprimatu baikenituen. Besteak beste, dotore askoa izan zen Oriok Kontxan irabazi eta iraileko ale hura, arraunlarien elastikoak eta zenbait bandera hori-hori atera zirenekoa.

Publizitatearen premia

Baina finantziazioa ere behar genuen. Hau da, publizitate-moduluak saldu behar genituen. Dendaz denda, tabernaz taberna joaten ginen gure eskaintza egitera.

- *Kaixo, egun on / arratsalde on, nahi al duzu KARKARA publizitatea jarri?*

- *Barkatu, zer da hori?*

Jakina, erabat normala haien erantzuna. Publizitatea non jarri behar zuten jakin gabe, dirua eman? Eta hala hasten nintzen azaltzen aldizkari bat sortu nahi genuela, KARKARA zuela izena...

Gertu-gertukoa bazen, ez zen ausartzen ezetz esatera; batzuek, ezagunek edo gertukoek, baietz esaten zuten; beste batzuek, ezetz; pentsatuko zutela esaten zuenik ere bazen; eta publizitatea jarri beste aukerarik ez zuena ere bai. Esaterako, nola esango zidan, bada, aita Patxik harategiko publizitatea ez zuela jarriko. Ez halakorik!

7. zenbakia, protesta-karkara

Ordura arte, erabat boluntarioa izan zen lana. Baina, denborak aurrera egin ahala, pentsatu genuen beharrezkoa zela zertxobait profesionalizatzea. Horrenbestez, Orioko Udalari eskaera bat egitea erabaki genuen. Lokala eskatu genion, oinarritzko azpiegitura izango zuena –ordenagailua, telefonoa, faxa ...–, eta diruz laguntzeko konpromisoa hartzeko ere bai. Garai hartan EA zegoen alkatetzan, eta ezetza borobil-borobila izan zen.

Udal-hauteskunde aurreko garaia zen, eta, ezezkoaren aurrean, eztabaida izan genuen gure artean, nola jokatu erabakitzeko: edo protesta-KARKARA hauteskunde aurretik atera, orduko agintariei koloreak argitzeko, edo hauteskundeak pasatzen utzi eta protesta-zenbaki hura erabili korporazio berriari gure proiektuaren alde egitea eskatzeko. Azken hori aukeratu genuen, eta EAJk gidatutako korporazio berriak –Jose Miguel Makazaga buru zuenak– aho batez onartu zuen gure proposamena.

Udaletxean lokala

Horrela, bada, udaletxeko gela bat utzi ziguten, ordenagailu eta guzti. Ene, bada!, imajina al dezakezue zer izan zen hura guretzat? Ordenagailua!

Harrezkero, aldizkaria disko batean gordeta eraman ge-

ERREPORTAJEA



Jakes Goikoetxea eta Miren Etxeberria .KARKARA



KARKARAKO lan taldea zuzenketak egiten. KARKARA

nuen, baina ez gaur egungo disko borobil horietako batean; ez, ez... garai hartan karratuak ziren.

Ahaztu baino lehen, beste kontu bat: gela ondoan musika-eskola zegoen. Gure gozamenerako, arratsalde asko eman genituen poz-pozik idazten edo dena delakoa egiten.

Urte dezente eman genituen han, eta igande luze, amaiezin eta estresante asko bizi izan genituen. Eta nola ez, hamaika pasadizo, ustekabe, haserre, liskar eta ezin konta ahala bitxikeria gertatu zitzaizkigun. Esaterako, paperontzia erre zitzaigun eguna –erretzaileak ginen gutako asko, eta ez zegoen debekatuta erretzea leku publikoetan–; igande gau batean, egun guztia lanean eman ondoren, ordenagailua itzaltzerakoan *¿desea guardar los cambios?* eta *no* zioen aukeran sakatu nuen gaia –tuntun paela, halakoa!–; kolaboratzailearen batek artikulua ekarriko zigula agindu, inoiz iritsi ez eta azken unean zerbait asmatu behar izaten nuen/genuen gaia...

Euskara, politikaren gainera

Gure helburua zein zen garbi genuen. Euskara hutsean idatzitako aldizkaria egin nahi genuen, eta bertan idatzi Orion gertatzen ziren kontuak, udalean hartzen ziren erabakiak, herritik kanpo bizi ziren oriotarren berri eman eta abar.

Baina artean ez zen ezaguna KARKARA. Errezeloz begiratzaren zigunik bazen, baita etiketaren bat jarri nahi zigunik ere.

Denek garbi zuten PProak ez ginela, behintzat. Batzuentzat HBroak ginen, eta beste batzuentzat, berriz, PNVroak. Ni, zenbaitetan, sutan jartzen nintzen. *Hau da, hau, ezin asmatua jendearekin!*, pentsatzen nuen nire baitan. Baina denborarekin konturatu nintzen ez zela batere txarra. Ez ginen inorekin ezkontzen, ahalik eta zintzoen izan nahi genuen herritarrekin, bai eta geronen buruarekin ere.

ZENBAKIA

352

Karkararen aleak. Hala eta guztiz ere, 353. dela esan daiteke, O ale bat egon zelako 1987an argitaratu zena, eta gero aldizkariaren umekia izan zena.

■ OSPAKIZUNA



AMAIA GARMENDIA

Gazte garaiak gogoratzen

Kintako afariak bor-bor dabiltza azkenaldian. Eguraldi onak festa-rako gogoia ekarri du eta urte berean jaiotako asko bildu dira, lagun giroan gazte garaiak gogoratzeko. Aspaldi ikusi gabekoak ikusi, oroitzapenen kutxan gordetako anekdotak mahai gainera ekarri. Aurreko asteburuan 1974ean jaiotakoak elkartu ziren, eta gazteak bailiran ibili ziren, kantuan, solasean eta dantzaz.

■ HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Duela urte batzuk tabletek iraultza ekarri zuten. Hurrengo pausoa hau izan daiteke, jantzita daukazu zerbait ahotsaren edo irudien bitartez kontrolatzea, eta hori hemen erakusten ari gara.”

Urko Esnaola, Teknialiko ikerlaria, Berria, 2014ko ekainaren 6a

“Gure jeneroa hemen jaioda da, hemen hazia, hemen hila, hemen txikitua eta saldua. Produktu naturala da, mimoz hazia eta Eusko Labelak eskatzen duen araubideari jarraitzen diona.”

Jose Anjel Uzkudun, Harakai-Urkaiko presidentea, Gipuzkoako Hitza 2014ko ekainaren 6a

ENORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak -beira bikoitza
- segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak -barandak -kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

AIRDATZA modas

Eusko Gidariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

bodegasERRASTI, S. L.

Eskualderako buntzatzen
Zudugarrak, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur, Senorio de Luquain
Gailur eta Ardanegi
Arabar Erriosoako ardoak

Eusko Gidari, 46 • ORIO • 943 83 03 06 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserasti@euskalnet.net

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Zure Konfiantzazko Gertuko Tailerra

KOLON TXIKI
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Garmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ITZIAR
Kiroak
Tel. 943 83 31 03

Arkupean

Ez da ahaztu behar herri giroaren motor nagusia herriko merkatari, tabernari eta azokan postutxoa duten norbana-koak direla. Eta herria bizi-bizia izatea ez da hauen onurarako bakarrik.



enbora dexente pasa da dagoeneko herriko merkatariak burua altxa ezinda da biltzala. Hamaika buruhauste eta hamaika arazori buelta eman behar izan diote beraien negozioei tin-ko eusteko. Asko bizitza aurrera atera nahian bizia galtzen. Bizia, osasuna eta denbora, seme-alabekin pasa gabeko momentu asko. Gehiegi, akaso. Orain artekoa gutxi ez eta aurrerantzean konpetentzia gogorrari hortzak erakutsi beharko dizkio- te, Eroskiri hain zuzen ere. Gure etxean, herriko hainbat eta hainbat etxetan bezela, hortik ateratzen dugu eguneroko ogiaren zati bat, eta horrexegatik, eta beste arrazoi mordo batengatik, gaurko txokoa berei propaganda egiteko erabili-ko dut.

Gainbeheran eta arnasestuka den sektore honi oxigeno pixka bat ematen osasuntsu mantenduko da, baita herritar askoren osasuna ere.

Hasteko esan zerbitzuaren kalitatea ezin dela konparatu ere egin bata eta bestearen artean. Gure kaleetan dauden merkatari naiz tabernariak bizi osoa daramate bakoitza bere gremioan lanean, eta inoiz dudaren bat izan ezkerro, edo go- mendioren bat behar izan ezkerro, arreta eta esperientzia handiz lagunduko dizute. Supermerkatu berrian, aldiz, nere



Zigor Esoain

iritzi apalean, askoz ere profesio- naltasun gutxiago antzeman daite- ke. Produktuen kalitateari errepa- ratuz gero, batean hemen inguruko produktuek duten freskotasuna eta seguritatea aurki dezakegu eta bes- tean? Baten batek egingo al lidake apustu nundik datozen bertan salgai di- tutzen barazkiak? Edo inork ba al daki zein itsasotan harrapatu dituzten salgai dituzten arraiak?

Ez da ahaztu behar herri giroaren motor nagusia herriko merkatari, tabernari eta azokan postutxoa duten norbana-koak direla. Eta herri bizi-bizia izatea ez da hauen onurarako bakarrik, kate hau sendo mantentzean asko baikara onura- dunak. Bukatzeko, nik edo nire ingurukoek gauzak antolatu izan ditugunean beti eskuak zabalik hartu gaituzte eta edo- zein oztoporen aurrean beti erakutsi dute laguntzeko gogo- a. Makina bat aldiz joan gara gazteok gazte festen edo beste ekitalditan sariak jarriko ote lituzketen galdezka eta eran- tzuna beti baieztatu izan da. Eta berek, Arkupe edo Arkupetik kanpo dauden dendari eta tabernariak, urtean zehar antola- tzen dituzten ekitaldiak ere kontutan hartzekoak direla iru- ditzen zait gure erosketak egiterako orduan. Ez baditugu he- rritarrok betiko negozioak zaintzen, berek ere ez gaituzte goxo-goxo tratatuko. Azken batean, ustez erosoago eta mer- keago dena, garesti ateratzen baita.



Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Mikel Markez

Noka, noka asi voce me mata

**Gertutasuna, konfiantza, beroa...
Horiek dira Karkara bezalako aldizka-
rien indarra, eta hor noka edo hika
gehiago ez erabiltzeko ez dugu
aitzakiariak!**

Telefonoak jo zuen eta plantxa utzi eta aparailua eskegi zuen.

-Bai?

-Maritxu, zer moduz hago?

-Ondo Kontxi, hi ere ondo?

-Bai, bai. Ondo txarra kenduta! Mari Karmenekin hitz egin dinat atzo eta esan zionat hurrengoan ez abiatzeko bakarrik, baina badakin, horrekin ez zagon karrerarik ateratzerik!

Begiak itxi eta garbi ikus dezaket gure ama telefonoz hitz egiten bere ahizparekin. Ez zen arraroa guretzat ama nokaz entzutea. Ahizpekin hala jarduten zuen, amonaren sortetxera joaten ginenean hango lehengusuekin ere bai, auzoko zenbait laguni hala egiten zien. Gure amonak ere noka egiten zion gure amari, baina berak zuka erantzuten zion noski. Mende erdi lehenago jaio izan balitz berorrika egin beharko zion!

Ni Errenterian sortua nauzue Xenpelar bezala. Haren garaian noka eta hika zuka bezain natural erabiltzen zen, ondorengo belaunaldiek ere baliatu dute, baina zoritxarrez poliki-poliki galtzen doazenaren zantzuak gero eta nabarmenagoak dira. Aian ere ederki asko mintzatzen da noka baserri bueltako soziologiatik datozen familiatan. Orioko errealitatea ez dut ongi ezagutzen, beraz, zuei botako dizuet hausnarketarako galdera. Hika bezala, noka entzuten al da Orioko kaleetan? Gaztetxoan artean ere bai?

Goenkale bezalako serietan entzuten dugu batzuetan hika-noka jokoa eta saiakera eskertzen da egia esan. Baina gainontzeko Arraldeetan gure hizkuntza pobretzen, ahultzen, sinpletzen ari zaigun honetan, ez dakit ba!

Komunikabideetan ez da ia erabiltzen. Irratian badirudi informalegia zaigula eta prentsa idatziko estilo liburuek ez dizute gomendatuko berriaren trataeraren seriotasuna dela eta. Herri aldizkarietan, berriz, hortxe dugu erronka. Gertutasuna, konfiantza, beroa... Horiek dira KARKARA bezalako aldizkarien indarra, eta hor noka edo hika gehiago ez erabiltzeko ez dugu aitzakiarik!

Euskaraz gainera ez dugu generorik. Espainolez *el periódico* maskulinoa da eta *la revista* femeninoa. Euskaraz *egunkaria* eta *aldizkaria* neutroak dira, hitz bat erabiltzeagatik. Beraz, KARKARA zoriontzeko berdin-berdin hauta dezaket hika ala noka. Zorionak KARKARA, Beste hogeita bost bete ditzan opa dinat!

LURDES
ARRAZOZGIN

Eusko Gudari, 4
Tel. 943 83 00 24

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@carrajes.com | iglesias.es
ROBIO ORIO

24 HORAS
SERBITZUA

- ATXAK INKUTZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDARAK
- ATXAK IKURKO MALOUNKHIA ALDARAK
- KOMUNITATERENTZAKO SERBITZUA

PUBLIZITATEA

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrena Arantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Lizaso
dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 46

Faroeko bakaillaroa
daukagu

**ITSAS
MENDI**

gustigia

Eusko Gudari, 5 - Tel. 943 26 07 74 - Orio

ITZALA

*karpetak, jokatzeak
etxeak*

tel. 943 83 12 31

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Sardilago azusa - TE postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
Email: manterola@manterola.com
20810 ORIO - GIPUZKOA

Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

azkue

Tf: 943 130 438

azkue

LORETXU JATETxea

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

WWW.POTORAMIRO.COM
943 831043
610 697 668

Tel.: 943 835845

**ROSANA
ARRUTI**
ARGAZKILARIA

Aita
Lertxundi, 26
Orio

Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
PODLOGIA ZENTROA

ile apaingarria

MARIJO

Neska eta
mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943. 572083
FAX - 943. 571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



OROIMENAREN KUTXA

Behean, ezker-eskuin, Jose Manuel eta Pedro Egibar Salsamendi anaiak. EZEZAGUNA

Aiako kanpaien arnasa, argazkian

**Oroimenaren
kutxa**

Idatzi honetan argazkia dut abiapuntu. Bikaina da, zoragarria: adin guztietako jendea, denak elkarrekin jarrita, Orioko moilan, atzean Aia aldeko mendiak ageri direla. Herrikoak eta kanpokoak, denak batera. Batzuek ezagunak, besteak ez. Zerk elkartu ote ziten? Zer ospakizun ote zuten, XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadako egun hartan?

Erretratuko gizon bat ezaguna zen orduko gizartean. Eskuin aldeko adineko gizon bizardun betaurrekoduna Jose Olaizola da, 1883an Hernanin jaioa, XX. mende hasierako euskal musikaririk emankorrenetakoa izan zen: organo-jolea –Donostiako Santa Maria elizako organista zen–, konpositorea, zuzendaria, antzerki obren sortzailea, 1927an Euskal Herriko txistularien elkartearen sortzailea... Amezua organogileak eraikitako bi organo inauguratu zituen: Oviedoko seminariokoa eta Aiako San Esteban elizakoa. 1946an, Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko kongresuan, Donostiako Udalak saritu egin zuen Olaizola, haren *Oleskari Zarra* operagatik. Hona zer zioen Olaizolak berak operaren jatorriaz: *Aia inguruan lagunekin txangoan nenbilela, elizaren kanpai hotsa entzuteak inspiratu ninduen, han orduan sentitu nuena idatzi nuen operaren partituran*. 1956an Donostiako Victoria Eugenia antzokian maisuki estreinatua izan zen opera, eta sekulako arrakasta izan zuen. Jose Olaizolak Aia-Orioko Saltxipi baserrian zuen jatorria, hangoa zuen amona.

Baina argazkian bada jende ezagun gehiago. Olaizolaren ondokoa Fabian Loidi apaiz poeta edo Paulino Salsamendi da –zalantza–. Haren ondokoa, berriz, Pedro Egibar zarautarra da, Oriora ezkondu Teresa Salsamendirekin bi seme izan zituen: argazkiaren erdian, ezker-eskuin, galtza mo-

tzetan agertzen diren Jose Manuel eta Pedro anaiak. Argazkiaren erdi-erdian txapela jantzita dagoen aitona gizandia *Erregetxua* ezizenez ezagutua zen herrian; errege handiak baino maiteagoa zuten orduko oriotarrek.

Gainerako helduak ezezagunak dira guretzat. Eta eskuin aldean ageri diren beste haurrak fotografia egiteko momentuan koadrilara bildutako umeak izango ziren noski. Hala ematen du. Eskuineko ilehoria Zentellastarra zen, gaztetan hila.

Argazkia egiteko talde hori zerk bildu zuen ez dakigu ezer. Auskalo! Beharbada, San Nikolas elizako kanpaien doinuek inspiratzera etorria izango zen Jose Olaizola Oriora. Horixe pentsatuko dugu. Lehendik ere bagenekien kanpaiak komunikatzeko balio dutela, kanpai-hotsek gauza asko adieraz dezaketela: ordua, mezatarako deia, herritar baten heriotza –hil-kanpaiak desberdinak dira hildakoa emakumezkoa, gizona edo haurra izan–, etxe bat sutan dela, jai-eguna, jai-bezpera, txintxina... Jose Olaizolari kasu egin da, orain badakigu musika inspiratzeko ere balio dutela kanpaikaden doinuek. Aiako elizakoak *Oleskari zarra* inspiratu zion Olaizolari. Orioko elizakoak nor inspiratu ote du, Orioko oleskari ez horren zaharra? Benito Goiko Klean jaioa da, elizatik gertu, orain ere hala bizi da; herriko musika-eskola ere Goiko Klean dago...

Din dan, matutia, hiru ezkila din dan bolean, dorrean bi uso hegalaria, din dan matutia, usoak hegan, hegan... Gure arretetik joan zitzaigun Jose Manuel da, argazkiko anaietako bat, niri kanpai hotsek gogora dakarkidaten uso hegalaria, Kukuarritik gora, hegan.

IÑAKI ITURAIN



Kofradia eraikinaren etorkizuna arriskuan



Kofradia zaharraren eraikina egoera txarrean dago. KARKARA

Errioaren ertz batean, ia erortzeaz aurtitzen da urteak eta urteak ibaiari begira eta itsasoari lotuta egon den Kofradia. Bizia eman nahi diote arrantzaleek hiltzorian dagoen eraikinari; legeak, ordea, oztopatu egiten du eraikuntzaren eraberritzea.

Soka luzea ekarri du Kofradiaren etorkizunak, 2007an jarri baitzen lehendabizikoz mahai gainean gaia.

Plana eta legea kontraesanean

Alde zaharreko plan bereziaren baitan kofradiaren bereraikitzearen aldeko txostena behin betikoz onartu zen. Honek, eraikinak zuen itsas aurrealdea berreskuratuko litzateke eta arrantza-le kaleari irteera emango litzaioke.

Erakunde eskumendun guztiek – Costas eta Udala barne – sinatu zuten plana, eta ondorioz, onartu. Baina gaiz-

ki ulertuak egon ziren, oraindik argitu ez direnak. Eraikin berriak solairu bat gehiago izango zuela zioen txostena; Costasek, ordea, hori legez kontrakoa dela dio, ezin dituela solairu gehiago eduki, eta txostenean gordeta dago legea errespetatzeko beharra.

Ez atzera eta ez aurrera daude, bakoitzak bereari helden baitio. Batzuk plan berezian hitzartutakoa betetzea eskatzen dute; besteek, aldiz, legea.

Irtenbide baten beharra

1926an eraiki zen Orioko kofradia. Erabilpen handia eman zaio eraikinari, baina egun, hustuta dago, erortzeaz baitago. 2010. urtetik dago lurreratze-zorian.

Kofradiaren ingurua ere kaltetuta dago. Batetik, inguruaren geologiagatik; eta bestetik, hiriguneko sare urbanistikoak hodi-biltzaile egokirik ez duelako. Terrenoak behar bezain ongi da eta arrailak daude inguru guztian. Eraikina bota egin behar da, arrisku-sua baitago dagoen egoeran.

Bota ezker, ordea, ezingo litzateke 2007an hitzartu bezala berreraiki. Hortaz, akordio batera iristen ez direnez, eraikinak zutik jarraitzen du. Ados jartzen ez direla ikusita, Eusko Jaurlaritzak justiziaren eskuetan utzi nahi du erabakia.

Bildu: Jaurlaritzak oso berandu

Jaurlaritzak eman behar du baimena Kofradiaren proiektua aterako bada. Zalan-tza asko dituzte, dirudienez. Urtarrilean bilera deitu behar zuten eta mahai berean bildu Kofradia, Udala eta Jaurlaritzak. Baina oraindik ez da bilera egin, ez gaituzte deitu. Arrantzaleen proiektua gauzatzea nahi dugu eta Beñat Solaberrieta alkatea pazientzia hartzen ari da. Halere, etxearen eta inguruaren segurtasunak asko kezkatzen gaitu, asko.

Orain: Kofradiaren kasua

Misteriozko nobela baten izenburua ematen du eta martxa honetan orrialde askotakoa izango da. Denboran luze doa eta ez dauka epe laburrean konpontzeko itxurarik. Letra larriekin idazten den politikaren –Gasteiz-Madril ardatza– nahitako atzerapenak dakarten desgastea hurbileko erakundeek jasaten dute eta, azken finean, herritarrek sufritzen dugu. Oriotarrek gure kofradia hortxe nahi degu.

EAJ: Arrantzaleen alboan

Arrantza sektorea babestu beharreko sektorea da, horregatik, Orioko EAJk Eusko Jaurlaritzak Kofradiari eraikin zaharraregatik legeak onartzen duen ahalik eta etekin handiena lortzeko ahaleginarekin bat egiten du. Herriko moila lan eremu konplikatu da, eta gauzak dagoen moduan egiteko behar diren azterketak egiten ari da Jaurlaritzak. Horrek denbora behar du, baina, jakin badakigu, gauza ez dagoela geldirik.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Rokodromo berria eskolan



Biltegi zahar bat rokodromo polit batean bihurtu dugu. Denon artean egindako lana izan da. Gurasoek biltegia garbitu, Haritzek egurrarekin eta guk heldulekuak jarri. Astero ibilbide berriak asmatzen ditugu, eta ibilbide bakoitzari izena jarri. Ibilbidea osatzen duenak bere sinadura jartzen du. Jakin ezazue ibilbide batzuk oraindik egin gabe daudela... Rokodromoa jolas garaietan irekita egoten da, baita arratsalde batzuetan ere. Beste kirol batez gozatzeko aukera dugu orain.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Ordubetea motza egin zitzaigun elizako organurako bisitan



Maiatzaren 16an, HH5eko ikasleak Elizako organu berria bisitatzea joan ziren Xabier Lizaso musikariak gonbidatuta. Esperientzia oso aberasgarria izan zen, haurrek organoaren barruan sartu eta bere funtzionamenduz gozatzeko aukera paregabea izan zuten. *Agur Jaunak* kanta tradizionala irakatsi zien haurrei eta hantxe jardun ginen denok kantuan elkarrekin abesbatza onenen pare. Xabierrek erakutsitako hurbiltasuna eta maixutasuna eskertzeak dira.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

GAOk egun ederra ekaini zigun



Ostiralean, 2014ko maiatzaren 30ean, oriotarrak eta getariarrak Aiara etorri ziren GAO ospatzera. Nolega programaren barruan, urtero, Getaria, Aia eta Orioko eskolek, euskarazko emanaldi trukaketa egiten dugu, txandaka.

Goizean hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izan genuen: bertsoak, kantak... Arratsaldean, altxorren bila jokua egin genuen, 5 eta 6. mailakoon ardurapean. Egun ederra igaro genuen hiru herritako ikastetxeek.



Jairo Xabier Torres

Handitzen, handitzen...

Nire iritziz, 6. mailatik DBH lera salto txikia dago. 6. mailan ikasi gabe, hau da, klaseetan adi egonez nahikoa izan nuen ikasgai guztiak gaitzitzeko. Aldiz, DBH leian ikasgai guztiak gaitzitzeko ez da nahikoa klasean adi egotea, *ikaaasi* egin behar da! Horren ondorioz, gure gelako ikasle bat baino gehiagok susto ederra hartu du aurtan.

Ni horietako bat izan naiz. Ikasgai guztiak gaitzitu ditut, baina ez naiz gustura gelditu aurtan egin dudana lanarekin, badakidalako gai naizela lan gehiago egiteko eta emaitza hobekortzeko.

Aurtan lagunekin klasean bikain ibili naiz. Nahiz eta, irakasleak batzuetan erabaki okerrak hartu eta bronka bota, zortea dugu oso irakasle onak tokatu zaizkigula. Nik esango nuke, DBH leian tokatu zitzaizkigun irakaslerik hoberenak izan direla. Beraiekin oso ondo moldatu gara; oso majoak, amore onekoak... direlako.

6. mailatik datozen ikasleei abisatu nahi diet ikasten hasteko eta pilak jartzen hasteko datorkien kurtsoa desberdina delako orain arte egindako kurtsoekin konparatuz.

Espero dut nire artikulua gustatu izana!

Ikasgai guztiak gaitzitu ditut, baina ez naiz gustura gelditu aurtan egin dudana lanarekin

PUBLIZITATEA



sinergia FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



gizarte
kutxa



LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ASTILORDUTIA - LARUNGATENA 16:00 ETX. JO. EGURETAN

arkaitz taberna
...orio...

- Ogiartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Terraza alerrarekin
- Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 83 16 57

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 60 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, beheko, 20810 Oriz



KAIUA
Sabor

Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiuara
bokata ederrak jatera

Antzarko portua 35, beheko
Tel: 943 840 080

ZABALIK! PROBATU EZAZU!

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Katu Horia
BIBOTATZAK KATUAK

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO

TEL. 943 11 66 99

LOKALIZADURA
888 89 11 29

www.katuhoria.com



GARMENDIA
BIMBOLARI - GAZTAK, ARITZA - ARDURILARI

Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

ardoak, urdalkiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu



943 83 09 84

alta lertxundi, 36
ORIO

HAIZE BERRI
Bibotatzak, janariak

Plater konbinatuak,
bokata,
hamburgerak,
rujolak,
egunko menua...

eta etxera eramaten ditugu!

Bizka (Bilbao) - Bizka (1) - 48 010 01 11 22 - Bizka (Bilbao) - 48 010 01 11 22

Leuna eta goxoa, belarri eta begientzat

Kritika Amaren alabak

Musika, Amaren alaba taldeak Plazandre diska aurkeztu zuen martxoaren 30ean Orioko Kultur Etxean



Amaren Alabak taldeak attrezzo landua prestatu zuen . KARKARA

Zuberoko lau neska –taldean sei badira ere– Orioko kultur etxeko aretora sartu dira oinez, espartina deigarriak jantzita. Sarrera apala, gertukoa; kantari eta kantazale, aurrez aurre, bertatik bertara.

Eskenatokian koadro handi bat eta bi aulki; musika tresnen aztarnik ere ez. Atzean tela beltza eta argiak ezker-eskuin, alde banatan. Itxura batean, simple.

Apaingarri eta osagarri askorik gabe funtzio *konplexua* egin dute ordea. Ahotza ahotsaz lagunduta, a capella, eta batez ere zuberotarrez abestu dute. Baina entzulearen belarria goxatzearekin nahikoa ez eta gorputz-espresioa ere baliatu dute aulkian eserita dagoena bereganatzeko. Aulkiotan eseritako bi ausart ere altxarazi dituzte eta berek ahotsez kantatutakoa dantzatu dute. Gainerakook txalo.

Ez da sorpresa bakarra izan, euskal abestiei beren ikutua eman baitiote behin baino gehiagotan. Pena bakarra daukat: Ziberoako eta Nafarroako euskalkia gehiago ulertu izan banu...

LORE BERSALUZE

Soinuen tailerra oholtza gainean

Kritika Kalakan

Musika, Kalakan taldeak kontzertua eskaini zuen Orioko Udal Kanpinean, ekainaren 13an, ostiralean



Kalakan taldeko hirukotea . MIRARI ARRIOLA

Ahotsa eta perkusio instrumentuak lanabes; soinuuen tailerra oholtza gainean. Argiak neurrian oihalarrean emanak eta ilargia osagarri. Apirilean eguraldiak zapuztu zuena maiatzaren eguraldiak edertua. Hiru elementu oholtza gaineko ofizioa erraza dela sinistarazi nahian; hiru artista Thierry, Jamixel eta Xan. Soil baina errekurtsioak errepikatu gabe. Serio baina irribarrez. Gozo baina indartsu. Bai, ederra izan zen Kalakan hirukoteak Orioko Kanpinean eskaini zuen emanaldia. Bukaerarako utzi zituzten Sagarra jo, Iturengo arotza eta abesti eza-gunenak. Doinuak, aireak eta soinuak. Hasi eta buka iruditu zitzaizkien proposamen osoa.

Kanpineko berrikuntzak aitzakia, errepikatze modukoa lekua bera ere. Urria arte amaitu dira Euskaraz bizi-bizi ekimenaren barruan egiten direnak. Jendeak ohitura hartu du gonbita edo sarrera hartzeko, ez da gutxi. Izango dugu elkarren berri.

JON AGIRRESAROBÉ

KARKARA.COM



Kultura

Herriko plaza kultur aniztasunaren epizentro

Hainbat herrialdeetatik etorritako pertsonen antolatzen dute, Orioko Udalarekin batera, Kultur Aniztasunaren Festa. Seigarren edizioa egin da aurten, sanpedroetatik kanpo. Hamahiru herrialdeetako guneak jarri dira Orioko plazan, munduko txoko desberdinetako kultura eta gastronomia ezatutarazteko. Maroko, Brasil-Bahia, Portugal, Nikaragua, Txile, Sahara, Brasil, Senegal, Honduras, Ekuador, Arjelia, Mexiko eta Argentinako postuak egon dira; dantza eta kanta ere ez da falta izan.

@karkara.com/orio/1402822816840



HASI TXIOKA

Zer gehitu edo kenduko zenioke San Pedro jaiei?



Kultura

Urruzuno literatur lehiaketan saritua izan da Peru Iparragirre

Gizartean tabua den gaiaz idaztea erabaki zuen Peru Iparragirrek: Heriotza. Sei eratara tratatu zuen gaia, sei ikuspegitatik landu. Emaizta saritua izan da, 2014ko Urruzuno literatur lehiaketan saria eskuratu baitu *Heriotza(k)* izeneko lanarekin. Asko dira gazte-txotan Urruzuno saria eskuratu eta, gero, bide eman-korra egin dutenak ahozko edo idatzizko literatura-ren bideetan.

Gizartea

Garmendiazpi elkarte

Anibarko Portuko beharrei erantzuteko

Garmendigañaren magalean, azpian, Anibarko Portua dago. Bertan, Garmendiazpi izenarekin bataillatu dute gaur auzoa elkarte. Auzoko premiei erantzutea du helburu, baita auzo dinamikoa izatea ere. Xedea lortzeko 30 lagun bildu dira, baina auzotar guztiei irekita dago; bizilagun guztiei zabalik.

Ekonomia

IRPHak milioi eta erdi

pertsonen eragiten die Espainia mailan

IRPH Stop Gipuzkoa plataformako kide da Iñaki Manteola; bertan, hipoteka maileguetako interes-tasa hori neurrigabekoa eta baliogabea dela defendatzen dute. Ezjakintasun handia dago gaiaren inguruan, nahiz eta pertsona askori eragiten dien IRPHak. IRPH hipoteka maileguetako erreferentzia azko interes-tasa bat da. IRPH Kutzak izeneko indizea al-dakorra da eta kutxek nahi bezala manipulatu dezakete.

zigor @zigorsaizar · 14 ordu
ERRIA TXIKOTA! aldizkariaren lehen alea kalean da | KMK 2014
fb.me/6VcyOpWmE
Zabandu

Iñaki Lertxundi @lertxundi · 18 ordu
EAJko alkategaia hautatu dugu datorren urteko Orioko hauteskundetarako. Lana esko egin beharko da arakasta izateko
Zabandu

Maialen Etxeberria @etxebe89 · eka. 8
Mugak eta harresiak ez ditugu maite ... Ezin gaur giza katea jun! Baño gure esku dago historikoa izango da!
3 1

Jabier Zabaleta @ja2er · 1 min
Udalek eta UEMAk egindako eskaria aintzakotzat hartu eta euskara bermatuko da Orio eta Usurbilgo bake epaitagian uema.org/2014/06/24/jus...
Zabandu



Kultura

Patxi Etxeberria omendu zuten Eskolarteko finalean

Plazan dabilen bertsolaririk zaharrena da Patxi Etxeberria. Larunbatean ere bertsotan aritu zen Ikastolako pergolan, bazkalostean. Maialen Lujanbio izan zuen bertso-lagun, eta librean aritu ziren biak. Bertsoak bota eta gero Errikotxia bertso eskolako Etxeberria omendu zuen. Egoitz Eizagirrek egindako lau bertso eder kantatu zitzioten, berak, bihotzez eskertu zituenak. Bestetik, Eskolarteko txapela Maider Arregi oñatiarrak jantzi zuen. Bertso giro ederrean, egun osoko festa izan zen Orion. @karkara.com/orio/1403512508966



Kirola

Azkue eta Amilibia euskal eskubaloien ikur

Zarauzko eskubaloitaldean ibiltzen da Mikel Amilibia, kadete mailan. Elastiko horiarekin, ordea, Jon Azkue Bidasoa Irun taldean. Asobal ligan aritu da aurten, eta mailari eustea lortu ez duten arren, alor pertsonalean denboraldi ona egin du eta saria izan da. Gipuzkoako eskubaloit federazioak urte honetan, 2013-2014 denboraldian, egindako lan ona aitortu nahi izan diete oriotarrei. Bakoitza bere kategorian eredugarria izan da eta maila oso ona erakutsi dute. Biak saritu nahi izan ditu Gipuzkoako federazioak.

@karkara.com/orio/1402987984512

25 urtetan KARKARAK emandako pausoak bideoan laburtuta



@karkara.com/orio/1403189062268

Orioko Curriculum Sortzen taldearen lehen fasea



@karkara.com/orio/1402326523865

Benito Lertxundiri eman diote Urrezko Domina



@karkara.com/orio/1402659024559

ZERBITZUAK

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Pisua salgai Abaro-mendin. 61 metro karra-tu eta 140 metro karratu-ko jardina. Bi logela, ko-muna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637 419 739

■ Apartamentua salgai Orioko Kale Nagusian. 195.000 eurotan. Erai-kin berria, gela bat eta trasteroekin. Garajea aukeran. Dekorazio ezin hobe.

Ainhua: 627 638 776.

■ Etxebizitza salgai Orion. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. 82 metro ko-adro, terraza kontuan hartu gabe. Garajea au-keran. Benta Enea Etxea, Kale nagusia 28-3 esku-bia. Interesatuek deitu 689 555 091 zenbakira edo 943 83 59 43-ra.

■ Garajea salgai Orioko Goiko Klean -Almiran-te Oa-. Tf: 688 69 14 45 edo 688 84 43 18

■ Pisua salgai edo aloka-gai Orion, Kale Nagu-sian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, sal-menta 140.000€ Intere-satuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira (Paki).

■ Hiru lekutako sofa eta aginte mandodun relax butaka salgai. 2,20 me-tro luze eta 0,96 zabal. 2,40x1,70ko alfonbra salgai, hainbat kolore eta irudi geometrikoe-kin. 943832219 15:00eta-tik 17:00etara deitu.

■ Etxebizitza ia berria salgai Aian altzariekin. Hiru logela, bi bainu, igo-gailua eta garajea ditu. Azken solairua. 645484958.

■ Garaje itxia salgai Orion, Baxoalde klean. 677 932428.

Alokatu

■ Logela alokagai. 100 metro karratu, leku one-an. Tf: 657 535 299

■ Baserri bat alokagai Asteasun, bizitzeko mo-duan. Tf.: 615 790 965.

Lan eskaintza

■ Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut, urte guztirako. Ingelesa jakitea garrantzitsua. 699 781963

Lan eskaria

■ Gizonezkoa lanerako prest. Baimen guztiak ditut, eskorga eta zubi-garabiarenak barne. Lan-arriskuen preben-

tzio kurtsoa eginda. Tf: 657 535 299

■ Arratsaldetan lana egi-teko prest dagoen ema-kumea. Etxeko lanak eta ume nahiz helduen zaintza. Interesa due-nak deitu dezala 653508251 telefonora.

■ Lanerako gogoia eta es-perientzia daukan ema-kumea, garbiketa eta zaintza lanak egiteko prest. 647059103 -Sel-via Paredes

■ Emakumea lanerako prest. Adineko pertsonen zaintzan esperientzia eta erreferentziak ditut. 630 850 167 -Maria Elena

Galdutakoak

■ Urrezko pultsera galdu dut. Katezkoa eta txapa batekin, "Malen" idatzia dauka txapak. Ikastolako pergolan galdu zen maia-tzaren 8an, 18:45ak alde-ra. Norbaitek aurkituko balu, deitu 680 572 798ra.

■ Landarbidetendand giltza sorta handi bat dute, bezero batek utzita orain dela bi hilabete.

Beste batzuk

■ Ekainetik aurrera triki-tixa eta panderoko klase-ak eskaintzen ditut. An-der Loretxu 689182840.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	07:30 eta 19:45	01:17 eta 13:28	
02	08:08 eta 20:23	01:57 eta 14:07	
03	08:49 eta 21:05	02:38 eta 14:49	
04	09:35 eta 21:54	03:23 eta 15:37	
05	10:28 eta 22:50	04:14 eta 16:32	
06	11:30 eta 23:53	05:11 eta 17:34	
07	12:35 eta ____	06:13 eta 18:38	
08	00:58 eta 13:36	07:13 eta 19:38	
09	01:58 eta 14:30	08:08 eta 20:32	
10	02:51 eta 15:18	08:57 eta 21:22	
11	03:39 eta 13:03	09:44 eta 22:09	
12	04:25 eta 16:47	10:29 eta 22:55	
13	05:11 eta 17:32	11:13 eta 23:41	
14	05:56 eta 18:17	11:59 eta ____	
15	06:43 eta 18:03	00:28 eta 12:45	
16	07:31 eta 19:52	01:16 eta 13:33	
17	08:23 eta 20:45	02:06 eta 14:24	
18	09:18 eta 21:42	03:00 eta 15:18	
19	10:19 eta 22:45	03:58 eta 16:19	
20	11:26 eta 23:55	05:01 eta 17:26	
21	12:37 eta ____	06:09 eta 18:37	
22	01:07 eta 13:45	07:16 eta 19:46	
23	02:14 eta 14:46	08:18 eta 20:47	
24	03:12 eta 15:37	09:11 eta 21:39	
25	04:01 eta 16:22	09:57 eta 22:25	
26	04:45 eta 17:02	10:39 eta 23:06	
27	05:23 eta 17:39	11:17 eta 23:44	
28	05:59 eta 18:14	11:53 eta ____	
29	06:34 eta 18:48	12:29 eta 12:29	
30	07:08 eta 19:22	13:05 eta 13:05	

ZAINZAKO BOTIKAK

UZTAILA

■ 1ean eta 7an, Iriarte.
 ■ 2an, Larrañaga.
 ■ 3an, Azaldegi.
 ■ 4an, Etxeberria.
 ■ 5etik 6ra, Mutiozabal.
 ■ 8an eta 14an, Larrañaga.
 ■ 9an, Mutiozabal.
 ■ 10ean, Etxeberria.
 ■ 11in, Gallo Artiano.
 ■ 12tik 13ra, Azaldegi.
 ■ 15ean, Mutiozabal.
 ■ 16an, Etxeberria.
 ■ 17an, Iriarte.
 ■ 18an eta 30ean, Azaldegi.
 ■ 19tik 20ra, Zulaika.
 ■ 21ean, Mutiozabal.
 ■ 22an eta 28an, Etxeberria.
 ■ 23an eta 29an, Gallo.
 ■ 24ean, Mutiozabal.
 ■ 25ean, Etxeberria.
 ■ 26tik 27ra eta 31an, Iriarte.
 ■ 18an, Etxeberria.

Azaldeg: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
G. Artiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
 > Hileta zerbitzu orokorrak
 > Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Hilabete barru, jai giroa nagusi Aian

Ekainean, eguraldi onarekin batera jai giroa eta herriko festak etorri ziren; egutegiko egun guztiak gorritz margotuak zeuden. Uztailean herriko jaiekin jarraituko dugu; baita abuztuan ere. Aian San Donato eta San Lorentzo jaiak hasiko baitira. Ekitaldiz jositako egitaraua antolatu dute oporrei ongi etorria jai giroan emateko.

Orio

Bixiguaren festa

- Uztailaren 17tik 20ra, Bixiguaren festa.
- Uztailaren 17tik 20ra Bixigu zirkuitoa. Antillan brotxeta-olagarroa, langostinoa eta txipiroia binagretan, Arkaitzen mariskoz betetako piperrak, Aterpen txipiroiak plantxan *Aterpe* erara, Aurrean antxoa errebozatua piperrekin, Barakan legatza errebozatua piperradarekin, Bordatxon olagarroa *Bordatxo* erara, Gabonen bakailau kroketa, Goizeko tabernan hegalgoria, Gure Txokoan antxoa *Gure Txoko* erara, Koastan marisko salpikioia, Kolon-Txikin hegaluzea plantxan tipula eta piperrekin edo tomatearekin, Loretxun atun kroketa, Salatxon atuna pistoarekin, Sarasuan atuna piperrarekin, Xaloan txipiroiak, Zaharren Babeslekuan bakailau tortila, Kaiuan piperra, izokina, antxoa eta tipul, Boga-Bogan txipiroiak, Anarrin porru eta ganbaz beteriko bolobana, Gailernan sapoa saltsa berdean beteriko almeja, Sukian olagarroa binagretan.

Zineforuma gaztetxean

- Uztailaren 8an, Gartxot dokumentala
- Uztailaren 15ean, Piparmin.
- Uztailaren 22an, 24 hour party people

Erakusketa

- Sanpedroetan, Ostargiren erakusketa, Kultur Etxean.

Aia

Elkano auzoko sanpedroak

- Uztailaren 5ean, auzo afaria, 21:30ean, Gazteategi jatetxean. Izena emateko Gazteategi Jatetxera deitu behar da ekainaren 30a baino lehen. Telefonoa: 943131606. Laja, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak, afal ostean.
- Uztailaren 6an, meza nagusia, 11:30ean. Herri kirolak auzoko gazteen artean. Idi probak, 18:00etan. Ansorregi eta Larrañaga, afaldu ondoren.

Andatza auzoko sanpedroak

- Uztailaren 4ean museko izen ematea, 21:30ean. Mus txapelketa, 22:00etan.
- Uztailaren 5ean poteoa, 13:00etan. Auzo bazkaria, 14:00etan, Uhartemuño elkartearen trikitiaz girotua. Txartelak salgai Aristerrazu jatetxean, Uhartemuño elkartearen edo zenbaki honetan: 686 824 304. Toka txapelketa, 18:30ean. Bertso dema, 22:00etan. Dj Makala, 00:00etan. Txokolate beroa, 5:00etan.
- Uztailaren 6an Gaupasa eguna. Halterofilia erakusketa trikitiaz girotua, 12:00etan. I. Zaldi lasterketa, 17:00etan. Sagardo dastaketa, ondoren. Jon Ostolaza eta Unai Andonegiren eskutik erromeri, 19:00etan eta 00:00etan. Jaiei amaieara emateko traka zaratsua
- Uztailaren 12an, Oilasko-biltzeko afaria, 21:30ean, Uhartemuño.

Erakusketak

- Uztailla osoan zehar, Manuel Fernandez margolan erakusketa, Aiaiko Kultur Etxean.

San donato eta San Lorentzo

- Abuztuaren 2a, Pala txapelketaren finalak, 16:30ean.
- Abuztuaren 3a, Bolo txapelketa, 9:30ean. Usokume tiraketa, 10:00etan eta 16:00etan. Eskulan erakusketa, 12:00etatik 14:00etara, Goiz-Argin. Herri kirolak, 18:00etan.
- Abuztuaren 6a, jokoak, 16:00etan. Buruhandiak eta txupinazoa, 19:00etan. Herri afaria Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariak alaitua, 21:30ean.
- Abuztuaren 7a, Diana txistulariekin, 8:30ean. Meza nagusia, 10:30ean eta pilota txapelketa, ondoren. Mus txapelketa, 16:00etan. Puzgarriak plazan, 16:30ean. Kalejira, 19:30ean. Garagardo dastaketa, 20:00etan. Usain anaiak, 00:00etan.
- Abuztuaren 8an, Txirrindulari lasterketa eta jolasak, 11:00etan. Poxpolo ta konpania, 17:00etan. Egan, 20:30ean. Eñaut Elorrieta, Erramun Martikorena eta Mikel Markez 22:30ean. Egan, goizalderarte.
- Abuztuaren 9an, Toka eta sardin jana 11:30ean. Falcons de Vilafranca, 17:00ean. Karroza, 00:00etan eta DJ Abiba.
- Abuztuaren 10ean, meza, 11:00etan. Pelota partiduak, 12:00etan.

